

Birus informatiko batek kutsatutako lehen pertsona

READING-EKO UNIBERTSITATEKO (Erresuma Batua) Mark Gasson ikerlariak txip bat jarri zuen bere ezker eskuko gainazalaren azpian 2009an. Txipak hamabi milimetro luze eta bi milimetro zabal ditu, eta irrati-frekuentzia bidez identifikatzen da. Hainbat aplikazio du horrek. Laborategian sartzeko atean dagoen RFID sistemak, esaterako, eskuko txipa irakurri eta atea zabaltzen dio Gassoni.

Sistema hori gauza askotarako erabiltzen da; besteak beste, animalien migrazioak aztertu eta kontrolatzeko, edo, pertsonen gorputzean, medikuntza-helburuekin. Baina Gassoni ezustekoa gertatu zaio bere sisteman: laborategiko ateko RFID sistemak birus informatiko bat txertatu du haren txipean. Ondorioz, txipak transmititzen dituen datuak ez dira fidagarriak jada. Hori bai, Gassonen osasuna ez dago arriskuan. ■



Mark Gasson.



Zer ari da gertatzen Fukushima lur azpian?



BI URTE IGARO DIRA Fukushima zentral nuklearra lehertu zenetik eta txoko honetan orain arte eman ditugun datu gehienak lurrazaleko erradioaktibitate-mailari buruzkoak izan dira. Oraingon, berriz, ikusten ez den zerbait aipatu behar dugu: sistemak hozteko erabili den eta erabiltzen ari diren ura.

Zentralean istripua gertatu bezain azkar, itsasoko ura erabili zuten hoztaille. Tenperatura kontrolatzea lortu zute-nean, ur gaziak ur gezari utzi zion leku. Milaka tona ur erabili dira lan horretan, eta batek baino gehiagok galdetu du ea

non dagoen ur hori. Zati bat lurrundu egingo zen, beste zati bat itsasora itzuliko zen, eta beste zati bat inguruko lur azpian barreiatuta izango dela uste da. Ez dago ezereen ziurtasunik, baina berriki zulatu dituzten putzuetako uraren erradioaktibitate maila izugarria dela ohartu dira. ■



Itsas azpiko zaborra

Duela gutxi Ozeano Barean dagoen plastikozko “kontinentea” aipatu genuen. Orain, ikusten ez dena aipatu nahi dugu, itsas azpian dagoena alegia. Zenbat zabor dago itsas hondotan? Nola banatuta dago? Galdera horiei erantzuten saiatzen ari dira AEBetako ikerlari batzuk.

ttiki.com/52368
(Gaztelaniaz)

Mediterranear dietako ohiko osagai batek minbizi-zelulei eraso egiten die

Batez ere perrexilean, apioan eta kamamilan dagoen apigenina konposatuak bularreko minbizia sortzen duten zelulen heriotza eragin dezakeela baieztatu du Ohio Egoitza Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek.

ttiki.com/52369
(Gaztelaniaz)

Metalezko nano-lorategia

Beheko lotura klikatuta agertuko zaizkizuen loreak ikusteko mikroskopio elektroniko bat behar da, nanoskopikoak baitira. Wim L. Noordunek sortu ditu Harvard Unibertsitateko laborategi batean, eta horretarako elementu arrunt batzuk baino ez ditu behar izan: metalezko edo kristalezko euskarri ñimiño bat, matraxe bat, gatzak, silizioa eta karbono dioxidoa.

ttiki.com/52370
(Euskaraz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

ideia batetik errealitatera



iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16